



GOBERNANTZA,
ADMINISTRAZIO DIGITAL
ETA AUTOGOBERNU SAILA
Enplegu Publikoko Sailburuordea

DEPARTAMENTO DE GOBERNANZA,
ADMINISTRACIÓN DIGITAL Y
AUTOGOBIERNO
Viceconsejería de Empleo Público

<p>30/2026 EBAZPENA, ENPLEGU PUBLIKOKO SAILBURUORDEARENA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORREKO ETA HAREN ERAKUNDE AUTONOMOETAKO ELEKTRIKARIEN (ESPETXEAK), MEKANIKO GAINBEGIRALEEN, SUKALDEKO ARDURADUNEN, EJKO ADMINISTRAZIOKO KORPORAZIO-SAREA KUDEATU ETA MANTENTZEKO ARDURADUEN ETA LABORATEGIKO TEKNIKARI FAKULTATIBOEN LAN-KONTRATUKO LANGILEENTZAT GORDETAKO LANPOSTUEI DAGOKIEN LAN-POLTSETAN DAUDEN PERTSONEN ZERRENDAK ZUZENDU ETA ARGITARATZEN DITUENA.</p>	<p>RESOLUCIÓN 30/2026, DE LA VICECONSEJERA DE EMPLEO PÚBLICO, POR LA QUE SE CORRIGEN Y SE PUBLICAN LOS LISTADOS DE LAS PERSONAS INTEGRANTES DE LAS BOLSAS DE TRABAJO CORRESPONDIENTES A LOS PUESTOS DE TRABAJO RESERVADOS A PERSONAL LABORAL DE ELECTRICISTA (II.PP.), MECÁNICO/A SUPERVISOR/A,- RESPONSABLE COCINA, RESPONSABLE DE GESTIÓN Y MANTENIMIENTO DE LA RED CORPORATIVA EJ/GV Y TÉCNICO/A FACULTATIVO/A DE LABORATORIO DE LA ADMINISTRACIÓN GENERAL DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DEL PAÍS VASCO Y SUS ORGANISMOS AUTÓNOMOS.</p>
<p>Enplegu Publikoko sailburuordearen 126/2025 EBAZPENAREN bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomoetako lan-kontratuko langileen lan-poltsetan daudenen zerrendak argitaratzen dira, Enplegu Publikoko sailburuordearen 2025/108 Ebazpenaren irizpideen arabera.</p> <p>Aipatutako lan-poltsei dagozkien zerrendetan akats material bat ohartarazi da, eta horrek eragina du elkarren artean berdinduta dauden pertsona batzuen lan-poltsetako ordenan. Zehazki, akats bat antzeman da berdinketa hausteko bigarren irizpidearen aplikazioan, proba teoriko-praktikoan lortutako puntuazioari dagokiona (B atala).</p> <p>Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 109.2 artikuluaen arabera, «administrazio publikoek edozein unetan zuzendu ahal izango dituzte, ofizioz edo interesdunek eskatuta, beren egintzetako errakuntza materialak, egitezkoak edo aritmetikoak». Beraz, aipatutako lan-poltsetako zerrendak zuzendu ondoren, Lan Poltsen Atarian argitaratzen dira.</p>	<p>Mediante RESOLUCIÓN 126/2025, de la viceconsejera de Empleo Público, se publican los listados de las personas integrantes de las bolsas de trabajo correspondientes a los puestos de trabajo reservados a personal laboral de la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco y sus organismos autónomos conforme a los criterios de la resolución 2025/108, de la viceconsejera de Empleo Público.</p> <p>En los listados de las bolsas indicadas se ha advertido un error material que afecta al orden en bolsa de algunas personas empatadas. Concretamente, se ha detectado un error en la aplicación del segundo criterio de desempate, relativo a la puntuación obtenida en la prueba teórico-práctica (parte B).</p> <p>De acuerdo con el artículo 109.2 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, "las Administraciones Públicas podrán, asimismo, rectificar en cualquier momento, de oficio o a instancia de los interesados, los errores materiales, de hecho, o aritméticos existentes en sus actos." Por tanto, una vez corregidos los listados de las bolsas de trabajo indicadas, se procede a su publicación en el Portal de Bolsas de Trabajo.</p>

Este documento es una representación del documento original electrónico, verificable en la sede electrónica mediante el localizador indicado al pie de página. Dokumentu hau jatorrizko dokumentu elektronikoaren irudikapen bat da, egoitza elektronikoan egiaztagarria, orri-oinean adierazitako lokalizatzailearen bidez.





EBATZI DUT:

Lehenengoa.- Ondorengo lan-poltsen zerrendak argitaratzea lan-poltsen atarian:

- Elektrikaria (espetxeak)
- Mekaniko gainbegiralea
- Sukaldeko arduraduna
- EJKo administrazioko korporazio-sarea kudeatu eta mantentzeko arduraduna
- Laborategiko teknikari fakultatiboa

Lan-poltsen atarira sartzeko, egoitza elektronikoa eta helbide hauek erabil daitezke:

www.euskadi.eus/lanpoltsak

<https://www.euskadi.eus/bolsas-de-trabajo-de-la-administracion-general/web01-sedeep/es/>

Bigarrena. - Lan-poltsak osatzen dituzten langileen zerrendek Lan Poltsen Atarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango dute eragina.

Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuko sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena Lan Poltsen Atarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Gasteizen, sinadura elektronikoaren egunean.

Enplegu Publikoko Sailburuordea
MAITE BARRUETABEÑA ZENEKORTA

RESUELVO:

Primero. - Publicar los listados de las siguientes bolsas de trabajo en el Portal de bolsas de trabajo:

- Electricista (II.PP.)
- Mecánico/ Mecánica supervisor/a
- Responsable cocina
- Responsable de gestión y mantenimiento de la red corporativa EJ/GV
- Técnico facultativo/Técnica facultativa de laboratorio

Se puede acceder al Portal de Bolsas de Trabajo a través de la sede electrónica y de las siguientes direcciones

www.euskadi.eus/bolsastrabajo

<https://www.euskadi.eus/bolsas-de-trabajo-de-la-administracion-general/web01-sedeep/es/>

Segundo. - Los listados de personal integrante de las bolsas de trabajo surtirán efecto a partir del día siguiente de su publicación en el Portal de Bolsas de Trabajo.

Contra la presente Resolución podrá interponerse recurso de alzada ante la consejera de Gobernanza, Administración Digital y Autogobierno en el plazo de un mes desde el día siguiente de su publicación en el Portal de Bolsas de Trabajo.

En Vitoria-Gasteiz, a la fecha de la firma electrónica

Viceconsejera de Empleo Público
MAITE BARRUETABEÑA ZENEKORTA